



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0004

GOBERNU BATZARRA

2023.02.14

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Begoña Tolosa Mendia
Xarles Iturbe Pasaban
Xabier Balerdi Tolosa
Jose M. Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren hamalauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko otsailaren 7koa.
2. Onartzea Tolosa Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika elkarte, S.A. (EJIE)ren arteko lankidetzahitzarmena KZGUNEA zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, kz ciudadan@ programaren esparruan.
3. Onartzea 2023 urteko egutegiak eta udalaren barne funtzionamendurako instrukzioa.
4. Enplegua finkatzeko prozesu berezien eta salbuespeneko prozesuen oinarrietan akats zuzenketak onartzea.
5. Onartzea EAeko Administrazio Orokorraren eta Tolosako Udalaren artean Tolosako udalerrian lokal jakin batzuk erabiltzeko baimenaren baldintzak ezartzen dituen hitzarmenaren luzapena.
6. Onartzea Tolosaldea Garatzen SArekin turismo oroigarriak saltzeko lankidetzahitzarmenaren luzapena.
7. Onartzea "12.4 San Frantzisko



pasealekua 32, 34, 36” Azpiesparruko gauzatze-unitatean jarritako bermeak bueltatzea.

8. Dekretu hauen berri ematea:

2023/270 dekretua: 2022/62 faktura zerrenda.

2023/275 dekretua: 2022/63 faktura zerrenda

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO OTSAILAREN 7KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSA UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN.

I. AURREKARIAK

2001eko apirilaren 10ean Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak “Konekta Zaitetz Ciudadan@” programa “Euskadi Informazioaren Gizartean” planean sartzea onetsi zuen. Akordio honen bidez, “Konekta Zaitetz Ciudadan@” programaren kudeaketa era jarraipena egitea Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten zen, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte S.A. (EJIE)ri programa burutzeko beharrezkoak ziren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen ziolarik.

2002ko maiatzaren 21ean, Tolosako Udalaren eta EJIEren arteko “Konekta Zaitetz [Herri@r](#)” programaren esparruan Tolosako kzguneak ireki eta ustiatzeko lakidetza-Hitzarmena sinatu zen.

Gaur egun, Programa horren bitartez ondorengo zerbitzuak eskaitzen dira: Aurrez aurrezko formakuntza, urruneko formakuntza (Tutoretzapean, Hitzaldi presentzialak, Biokonferentziak, Tutoretzak:teknologia berriei buruzko aholkularitza, IKTen ziurtapen-azterketak. IT-Txartela-SPRI, Identifikazio digitalerako ziurtagirien tramitazioak-BakQ-lizenpe eta Postontzi digitalean izena emateko tramitazioak. Metaposta.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2022eko azaroaren 30ean informazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat (“Konekta Zaitetz



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0004

Ciudadan@” programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordio berria sinatu zuten, lankidetzak marko berri bat ezartzeko.

2022ko abenduaren 23an, Eudel-ek hitzarmen berriaren proposamena bidali zion Tolosako Udalari, 2023ko otsailaren 20a baino lehen sinatzeko.

Hitzarmenak berritzeko beharra:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoak, Sektor Publikoaren Araubide Juridikoarenak, hitzarmen berritzea behatzen du.49.artikulua. Hitzarmenaren edukia.
- “EAEko KZGUNE zentroetako arreta -langileen kontrako jarrera oldarkorak prebenitzeko era horien aurrean esku hartzeko plana” eranstea.

II.ARAUBIDE JURIDIKOA

40/2015 Legearen 48. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, beren eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik.

Era berean, adierazi du hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko duela, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu beharko duela, onura publikoko jarduerak gauzatzen lagundu beharko duela eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete beharko duela.

Gainera, 47. artikuluan, administrazioen arteko hitzarmenen motak adierazten dira. Hitzarmen horiek administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatzen dira, edo administrazio publiko desberdinei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean, eta barnean hartu ahal izango dute beste administrazio publiko, organismo publiko edo lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitate baten bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.

20231HTP0002 espedientean jasota dauden enplegu teknikaren txostenak eta udal teknikariek egindako proposamenak.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0004

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika elkarte, S.A. (EJIE)ren arteko lankidetzaz-hitzarmena berritzea. Hitzarmenak honako hau dio:

TOLOSA UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA Y LA SOCIEDAD VASCA DE INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE) PARA REGULAR LA APERTURA, UTILIZACIÓN Y APROVECHAMIENTO DE CENTROS KZGUNEA DENTRO DEL MARCO DEL PROGRAMA KZ CIUDADAN@

BILDURIK

Alde batetik, OLATZ PEON ORMAZABAL Alkate andrea, Tolosako Udalaren ordezkari gisa.

Bestetik, ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA jauna, EJIE S.A.ko zuzendari nagusia, enpresa hori ordezkatzuz,

HAUXE ADIERAZTEN DUTE

1.- 2001eko apirilaren 10ean Gobernu- kontseiluak "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programa "Euskadi Informazioaren Gizartean" planean sartzeari onetsi zuela. Akordio horren bidez, "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programaren kudeaketa eta jarraipena egitea Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten da, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)ri programa burutzeko beharrezkoak diren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen diolarik.

2.- KZguneen euskal sare publiko hori Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza beraren mende dago oraindik ere, eta zuzendaritza horrek urtero "Konekta Zaitetz" programa, aurrerantzean KZgunea, garatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte S.A. (EJIE)ren esku uzten du, eta udalekin zentroak irekitzeko eta kudeatzeko beharrezko akordioak formalizatzea.

3.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2022eko azaroaren 30an informazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat ("Konekta Zaitetz Ciudadan@"



programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordioa sinatu dutela lankidetzak marko bat ezartzeko.

4.- Gaur egun, KZgunea proiektua Euskadi Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 –EEDE2025- esparruan kokatzen del, teknologia pertsonen zerbitzura jarri eta hurbiltzeko, gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunkor bat lortzeko funtsezko pieza delarik.. Modu estrategikoan, integralean eta diziplina anitzekoa, IKTen abantailak aprobetxatu nahi dira gizarte-orientazioa duten bi helburu lortzeko: lehiakortasuna hobetzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea. Ildo horretan, KZgunea eta haren ezarpen zabala helburu horiek lortzeko ekintzak ezartzea ahalbidetzen duen aliatu handia bilakatzen da.

5.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza ados dago Tolosa "Konekta Zaituzte Ciudadan@" programari atxikitzearekin. Programa hori 1. eranskinean adierazitako helbidean dauden espazioan garatuko da, erabilera eta zerbitzu publikorako bideratua.

6.- 2018ko uztailaren 3an EAEko KZgune zentroetan erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plan bat onartu zuen EJIek. Tolosako Udalak kontuan izan nahi du plan hori, zerbitzu hori eskaintzen den espazioaren erabilera-baldintzak berritu, eguneratu eta hitzarmen bakarrean jaso behar direlarik., eta .

7.- Tokiko araudiek xedatzen dutenez, "jabari publikoko ondasunak erabiltzean, erabilera pribatibotzat joko da jabari publikoaren zati bat okupatzea, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo galarazten duelarik". Orobat zehazten du jabari publikoko ondasunen erabilera administrazio-emakidari lotuta egongo dela. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak emakiden esleipen erregimena arautzen du 93. eta 94. artikuluetan. Bertan jasotzen denez, jabari publikoaren emakidak lehia aske bidez emango badira ere, zuzenean ere eman ahalko dira, lege beraren 137.4 artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta artikulua horretako a) atalak dioenez, hartzailea beste administrazio publiko bat bada, zuzenean esleitzeko aukera egongo da.

Hori kontuan izanik, bi aldeei komeni zaie lankidetzak-hitzarmen hau sinatzea, horrek EJIeri 1. eranskinean adierazitako helbideetan adierazitako gelek zuzenean emateko bide emango baitu, herri administrazioen arteko lankidetzak arduratsua lortzea helburu, eta, horrenbestez, egoki da <<Udalaren izena>>ko Udalak KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzen laguntzea, bai eta KZgunean erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plana kontuan hartzea ere, honako klausula hauei jarraiki:

KLAUSULAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen helburua EJIeren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzak-harremanak ezartzea da, 1. eranskinean adierazitako helbidetan kokatutako KZguneak ireki, erabili eta aprobetxatzeko prestakuntza- programak eta KZguneak eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak emateko eta, horrenbestez, Kurtzio Kultur Etxean dagoen gelaren jabari publikoko emakida arautzea.

BIGARRENA. LORTU NAHI DIREN HELBURU KOMUNAK

Hitzarmen honetako aldeek adostu duten lankidetzak helburu partikular –zentro bakoitzarenak– eta orokor –KZgunea programarenak– hauek izango ditu:



- KZgunearen Zerbitzuen Kartan zehaztutakoei jarraikiz zabaltzea KZgunea zentroa. Zentroaren egutegia KZgune guztientzako egindako egutegi orokorrera egokituko da.
- Udalerriko herritarrei teknologia berrien inguruko prestakuntza libre, unibertsal eta egituratua ematea. Antolakuntza, laguntzaileak hautatzea eta baliabideen eskuragarritasuna zentroko hezitzaileen ardura izango dira
- Zerbitzuak ematen direla bermatzea, bai KZgunea programakoak bai udalak zentro horretan ematen dituenak zein hitzarmeneko aldeekin lankidetzan diharduten erakundeek ematen dituztenak, hala, zentroaren kalitate-irudia indartzeko.
- Ahalik eta jende gehienengana heltzea, bai udalerrri mailan, bai oro har, hiru lurralde historikoetan.
- Bi aldeen interesekoa den eta kostu ekonomikorik ez dakarren beste edozein, gastu hori onartzen dutenean izan ezik.

HIRUGARRENA. ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK:

- Lan egutegia: KZguneak lan egutegi estandar bat eratuko du bere zentro guztientzat, aurreko urteko azken hilabetean egin eta udaletxera bidaliko dena. Lan egutegi horrek beti Gobernuak onartutako estatu, autonomia erkidego, probintzia eta udal mailako jaiegunak hartuko ditu kontuan. Gainera, oro har, abuztuan jai hartuko dute KZguneek. Lan egutegia udalei jakinaraziko zaie Kudeaketa Zentroak onartu bezain laster. Edozein kasutan ere, lan-egutegi hori KZgunea kokatuta dagoen espazioa irekitzeko egun eta ordutegietara egokitu beharko da.
- Lokalaren irekitzeko orduak: ahal denean, hezitzaileei eta/edo KZguneari loturiko programetako begiraleei KZguneako prestakuntza- zerbitzuak eta kanpoko prestakuntza emateko beharrezkoak diren ordutegietan zentroen irekiera ahalik eta gehien erraztuko zaie.
- Lankidetzaren promozioan: ahal den heinean, KZgunean eskaintzen diren zerbitzuen promozioan lagunduko du. Lankidetzaren horrek kostua ekar dezake udalarentzat honelako ekintzak direla eta: gutunak inprimatzea, KZguneak helarazitako propaganda banatzea, zentroa promozionatzeko ekitaldiak antolatzea, etab.

LAUGARRENA. ZERBITZUEN ZERRENDIA

KZguneetako zerbitzu estandarrik

Indarrean dagoen Zerbitzuen Kartan sartuta daudenak.

KZguneetako zerbitzu ez-estandarrik

Udalak KZguneari aipatu berri diren zerbitzu estandarretan sartzen ez den zerbitzuren bat emateko eskatuko balio, zerbitzu horiek honela aratuko dira:

- KZgunea zentroa dagoen espazioa utzi ahal izango da KZguneako hezitzaileen lan orduetatik kanpo, eskabide formal bat aurkeztzen denean.
- KZgunearena ez den prestakuntza emateko, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak egokitu behar badira, KZguneari dagokio egokitzapen hori eskatzea, kudeatzea eta ezartzea, aldaketa horiek aztertu eta bideragarriak direla erabaki eta gero.
- Udalak, beharra izanez gero, zentroa KZgunearen ordutegitik kanpo zabaldu ahal izango du nabigazio-zerbitzuak eskaintzeko. Tolosako Udalak KZguneari zentroa zein ordutegitan irekiko duen jakinaraziko dio, zerbitzu horren publikitate egokia egin dadin.



BOSGARRENA.- EJIE-REN BETEBEHARRAK

EJIEk honako betebeharrak hauek hartzen ditu bere gain:

- *Zentroen sarean kokatuta dagoen KZgunea zentroa kudeatzea, KZC@ kudeaketa-zentroan ezarritako irizpide estrategikoei jarraituz. Zentro horiek beharrezko baliabide material eta teknologikoak zein giza baliabideak izango dituzte ezarritako helburuak erdiesteko. Udalerrri ezberdinetako KZguneen funtzionamendua homogeneoa izango da, eta Zerbitzuen Kartan zehaztutakoak betetzea izango du helburu.*
- *KZgunea zentroa beharrezkoak diren baliabide teknologiko eta didaktikoekin zein giza baliabideekin hornitzea, eta horietatik eratorritako kostuak bere gain hartzea ezarritako helburuak betetzeko. Baliabide hauek dira azpimarragarriak:*
 - o *Azpiegitura teknikoak (PCak, komunikazio-lineak...): erostea eta onik mantentzea, bai horiek konpontzea eta ordezkatzera ere. 1. eranskinean adierazten da instalatutako ekipo- kopurua.*
 - o *KZC@ programaren helburua teknologiak sustatzea da; horretarako diseinatutako zerbitzuen katalogoa osatzen duten prestakuntza- eta zabalkunde-materialak.*
 - o *Zerbitzuen katalogoan ageri diren jarduerak egitea.*
 - o *Zentroaren kudeaketa egiteko beharrezko informazio-sistema (erabilera eta jarduerari dagokien estatistikak etab.).*
 - o *KZguneako Kudeaketa-Zentroak erabiltzaileei arreta emateko lanak, mantentze-lanak, euskarri teknikoei loturikoak etab. kudeatuko ditu.*
 - o *Hezitzailearen presentziak bermatuko du KZguneak eskaintzen dituen zerbitzuak behar bezala ematen direla.*
- *KZgunea proiektuari lotutako langileek ez dute inolako kontratu-konpromisorik ez eta lan-loturarik izango Tolosako Udalarekin. KZgunea zentroko hezitzaileek ez dute inola ere dagokion toki- administrazioarekin lan-harremanik edo harreman profesionalik izango.*
- *Udalarekin elkarlanean aritzea zentroan egiten diren jardueren berri herritarren artean zabaltzeko, udalerriko ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea lortze aldera. EJIEk beharrezko baliabide (materialak, pertsonalak eta ekonomikoak) erabili eta bere gain hartuko ditu, oro har hiru lurralde historikoetan aplikatu beharreko dibulgazio-ekintzetan.*
- *Zentroaren jarduerak beste erakunde- ekimen batzuekin koordinatzea horien gehieneko sinergia eta errentagarritasuna lortzeko, udalerriko herritarren mesedetan.*
- *Udalari zentroaren eguneroko funtzionamenduaren eta egindako hobekuntza-ekintzen inguruko informazioa ematea, inbertitutako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantentze aldera.*
- *Udal eta gizarte-etxeetan ematen den zerbitzuaren garapenean sortzen diren gorabehera gatazkatsu eta gizalegearen aurkako jokabide oro koordinatzaileari jakinaraztea.*
- *Lokalak eraikitzeko, altzariz janzteko eta antolatzeko jarraibideak eta irudi korporatiboa ematea.*
- *Aipatutako zentroa KZgunea zentroen sare orokorrean sartzea, martxan jarriko diren jarduerak komunei etekina atera diezaien.*



SEIGARRENA. TOLOSAKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Tolosako Udalak honako betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:

- 1. eranskinean adierazitako lekuetan kokatutako lokalak EJIEn esku jartzea jabari publikoko emakida bidez eta kosterik gabe, KZgunea programa gara dadin. Lokal horri sarbide-baldintza egokiak eman beharko dizkie Udalak KZgunearen identifikazio eta errotulazio egokia beti bermatuko delarik.. Lokalaren atontzea, altzariei, pinturari, kableei eta abarrei dagokienez.
- Erantzukizun zibila eta lokalen mantentze-lan desegokiak KZgunearen azpiegitura-ekipoiei eragindako kalteak bere gain hartzea, ondorioz, beharrezkoak diren aseguruak kontratatzea eta udal-titulartasuneko lokal eta instalazioei dagozkien segurtasun-arau eta neurriak ezartzea.
- Lokala baldintza egokietan mantentzea, garbitasunari, urari, energia elektrikoari eta abarrei dagokienez, eta horietatik eratorritako gastuak bere gain hartzea.
- Udalaren ahalmenen neurrian, 1. eranskinean adierazten den helbideetan dagoen KZgunea zentroetan ematen den zerbitzuaren erabilera ona sustatu eta bultzatzea, betiere EAEko KZguneetako jendearentzako arretako langileekiko jarrera bortitzen aurkako prebentzio- eta jarduera-plana kontuan hartuta..
- Zentroko egunerokoan gerta litezkeen gatazka-egoerak bideratzeko harremanetarako baliabide egokiak ematea.
- Zentroaren eta bertan garatzen diren jardueren berri ematea Udalak helburu horretarako dituen baliabideak erabiliz (Udal Aldizkaria, mailing-ak...), KZgunea programako Komunikazio arduradunarekin koordinatuta.
- Aipatutako hedapen hori egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak, pertsonalak zein ekonomikoak bere gain hartzea. Zentroak udalerraren esparruan garatzen dituen jardueren zabalkunde- ekintzetarako soilik erabiliko ditu Tolosako Udalak bide horiek.

ZAZPIGARRENA. KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Hitzarmen honen bidez adosten diren zerbitzuen funtzionamendu egokia zaindu beharko dute bi alderdieketa, bi aldeetako edozeinek eskatuta, bilerak egin ahal izango dira egokitze jotzen denean.

Alde bakoitzak esleitu dituen langileak:

- EJIEn KZguneko Kudeaketa Zentroari loturiko langileak esleitu ditu.
- Tolosako udalaren aldetik:
 - o Eusko Jaurlaritzako arduradun instituzionalekin harremanetan egongo den izaera instituzionaleko bitarteko bat.
 - o Eta izaera teknikoko bitartekariak, KZguneko Kudeaketa Zentroan dauden arduradunekin harremana mantentzen dutenak.

ZORTZIGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

Lankidetzeta-hitzarmen honek ez du alde sinatzaileen artean betebeharrak ekonomikorik sortzen.



BEDERATZIGARRENA. IRAUPENA ETA ONDORIOAK

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik kontatuta; hala ere, beste lau urteko luzapena izan dezake, betiere ekitaldi horretako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

HAMARGARRENA.-HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau bi alderdiek hala adosten badute edo alderdietako batek bere kabuz erabakitzen badubaliogabetu ahal izango da beste aldeak bere betebeharrak betetzen ez baditu edo egokitzat jotzen duen beste edozein arrazoi gertatzen bada, betiere kontrako alderdiari gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazten badio. Krediturik ez egotearen edo hori murriztearen ondorioz hitzarmena ez luzatzea erabakitzen bada eta arrazoi horregatik azkentzen bada hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrak argitaratu eta gero egingo da jakinarazpena.

Hitzarmen honetako helburuak erdiesten badira, gertaera hori hitzarmen hau azkentzeko arrazoia izan daiteke eta, Kalitate Planean ezarrita dagoen EAEko hiru lurraldeetan ahalik eta jende gehienengana heltzeko helburu orokorra ardatz hartuta, ekipoak eta langileak KZgunea proiektuak bere zerbitzuak eman behar dituen beste udalerrri batera eraman ahal izango dira.

Hitzarmena azkentzeko arrazoia edozein dela ere, ez da ondare-ondoriorik egongo eta aldeetako bakoitzak proiektuari emandako baliabide eta ondasunen jabetza eta titulartasuna mantenduko du zentroa ixtea adostu ondoren.

HAMAİKAGARRENA.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, Sektore Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan lankidetzat hitzarmenetarako bereziki xedatutakoarekin bat.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoekin bat, hitzarmen hau Lege horren aplikazio-eremutik kanpo dago.

HAMABIGARRENA. ARAZOAK KONPONTZEA

Hitzarmen hau sinatuz, alderdiek hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak elkarren arteko adostasunez konpontzeko konpromisoa hartzen dute.

HAMAHIRUGARRENA. INFORMAZIOAREN BABESA ETA SEGURTASUNA

Hitzarmen hau garatzean Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak galdatzen dituen segurtasun neurriak hartuko dira, edo hori ordezkatzeko duenean eta/edo hori garatzeko araudi osagarrian ezarritakoak.

HAMALAU GARRENA. ALDAKETAK

Hitzarmen honetan zehaztutako exekuzio- baldintzetan eragina duten inguruabarrak aldatu egiten badira, baldintza horiek aldatu egin ahalko dira bi aldeek sinatutako eranskin baten bidez; horretan



idatzitako puntuek jatorrizko testukoak ordezkatzeko dituzte eta jatorrizko hitzarmenera gehituko dira, gainerako klausulei inolako aldaketarik eragin gabe.

Programara bideratutako kredituan edo, efizientzia dela eta, kreditu hori KZguneen artean banatzeko moduan aldaketarik gertatzen bada, lanpostu-kopuruak, hezitzaile-kopuruak eta dedikazioak eta KZgunearen ordutegiak aldaketak jasan ditzakete proiektua indarrean dagoen artean. Alderdi horietako edozein aldatzeak ez du beste hitzarmen bat sinatzea edo hitzarmen hau aldatzea eskatuko. Udalerrian zentro berri bat zabaltzen bada indarrean dagoen hitzarmeneko eranskina aldatu beharko da, gorago adierazi bezala, besterik ez.

1. ERANSKINA

Dokumentu honetan jasota dauden zentroari buruzko datuak, hitzarmen hau sinatzen den unean.

UDAL ETA GIZARTE-ETXEAREN KOKAPENA

KZ zentroa	Kalea /Zk.	P.K.	Tel.
Tolosa: 1	Rondilla 34 (Musika Eskolaren eraikina, beheko solairua)	20400	943023681
Tolosa: Amaro	Amaroz, 31 (Auzo Etxea)	20400	945062555

LANERAKO LEKUAK

Gaur egun zentroak honenbeste lanerako leku dituzte, eta lehentasunez prestakuntza-jarduerak garatzeko erabiliko dira:

KZ zentroa	Lanerako leku-kopurua
Tolosa: 1	21
Tolosa: Amaro	7

Tolosa, sinadura elektronikoaren datan”

BIGARRENA.- Hitzarmen hori sinatzea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen babesean, jarraian txertatutako eranskinaren ereduaren arabera.

HIRUGARRENA.- Alkate-lehendakariari ahalmenak ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.



3. ONARTZEA 2023 URTEKO EGUTEGIAK ETA UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO INSTRUKZIOA.

AURREKARIAK

2020 urtean Tokiko Gobernu Batzarrak lan egutegiari buruzko irizpide orokorrak onartzea eta hainbat gaiei buruzko prozedurak arautzea erabaki zuen, testu bateratu eta homogeen bat edukitzeko helburuarekin.

Ibilbide honetan, zerbitzuaren antolaketa desberdinak aztertu eta ebaluaketa egin ondoren, 2023 urterako egutegiaren zerbitzu instrukzioan aldaketa batzuk proposatzen dira. Aldaketa horiek Udate zerbitzuko lanpostuen, lan saio malgua duten lanpostuen eta udaltzaingoaren egutegiei eragiten die batez ere.

Proposamenak hasera batean hiru eranskin zituen, hau da:

- Batetik, egutegiei dagozkien instrukzioak eta horien aplikazioa (I. eta II. eranskinak).
- Bestetik, egutegi horietatik eratortzen diren lan orduei dagokien aplikazioa, interpretazioa eta zenbaketa (III. eranskina).

I.- EGUTEGIAREN ONARPENERAKO INSTRUKZIOAK ETA APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Egutegia onartzeko instrukzio eta aplikazio irizpideei dagokionez, aldaketa aipagarrienak hauek liriateke:

Lehen.- Lan saioari dagokionean, balorazioaren ondorioz emandako aldaketen ondorioz, lan saio malgua dutenen egutegia aldatu egin da; aldaketak atal hauetan egin dira:

“4.- Lan saio motak: lanaldi luzatua eta ordutegi bereziak.

Udalak, bere eskuduntzen barruan, eta onartu berri den lanpostuen balorazioaren ondorioz, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira. Honela, bost lan saio mota finkatzen dira:

- *Ohiko lan saioa: goizez egiten dena.*
- *Lan saio malgua: lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu.*
- *Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu.*
- *Lan saio zatikatua: goizez eta arratsaldez*
- *Txandakako lanaldia: goizez, arratsaldez eta gauez, edota goizez eta arratsaldeko txandatan banatzen dena.”*



.../...

“6.4.- Lansaio malgua izateagatik osagarri berezirik ez duten lanpostuen kasuan, ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko orduak izan ala ez) — ordu bakoitzeko bi ordutako konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredu); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei.

Atal hau ez da aplikagarria izango lan saiogatik berariazko osagarrian lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuetan; azken kasu hauetan konpentsazioa ordu bakoitzeko ordu batekoa izango da.”

.../...

“9.- Lan saio bereziak.

Lanpostuen balorazioaren ondorioz, bi lanaldi mota aldatu eta eguneratu egin dira eta modu honetan geratu dira:

- a) *Lan saio malgua eta lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu. Kasu honetan, lanaldi faktorea eta dedikazio faktoreak kontuan hartu dira. Kasu hauetan, udal hitzarmenaren prestutasuna aplikagarri izango da eta osagarria, balorazioaren baitan, % 5.8an finkatu da.*
- b) *Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu. Kasu honetan, eguneko ohiko lanaldia izango badu ere, zerbitzuaren beharrak ezarritako jardueretara baldintzatua egongo da beren ordutegia, beti ere lanpostuen ohiko zereginetan goizeko orduetatik kanpoko jarduerak burutzen direla kontuan hartuta. Honela, egutegi mota hau duten lanpostuak honako irizpideak jarraitu beharko dituzte:*
 - *Egutegiarekin batera urteroko planifikazio bat aurkeztu beharko dute, aurreikusiaz ze ordu kopuru sartuko lituzketen goizeko ordutegitik kanpo. Proposamen horren arabera, Giza Baliabide sailak egutegia aztertu eta oniritzia eman edo aldaketak proposatuko ditu.*
 - *Giza Baliabideetako sailean dagoen informazioa kontuan hartuta, planifikazioarekin lotutako malgutasunezko ordu-kopurua gehienez honakoa izango da:*
 - 1.- *Bulegoetako langileak: 40 ordu.*
 - 2.- *Kultur teknikaria: 80 ordu.*
 - 3.- *Brigadako lantaldea: 80 ordu.*
 - 4.- *Udaltzainak: berezko egutegian adierazten dena.*



- *Dena den, programatu edo planifikatu gabeko lan saioetara deitu ahal izango da, beti ere salbuespenezko izaeraz eta hiru eguneko epeaz abisatuz gero, beti ere programatutako gehienezko ordu kopurua agortu ez bada. Bestelako kasuan, ez ohiko orduen izaera emango zaie ordu hauei.*
- *Kasu guztietan irizpide hauek berraztertu eta eguneratuko dira, Giza Baliabideetako sailean jasotako datuen arabera.*
- *Guzti honen ondorioz, goizeko ohiko ordutegia ez da bulegoetako ohiko ordutegi berbera izango, hau da, lan saio malguaren ondorioz sartutako orduak, goizeko ordutegia murriztuko dute, guztira 1.592 ordu osatu arte.”*

Honetaz gain, Giza Baliabideetako teknikariaren txostena ere gehitzen da proposamen honetan.

Bigarrena.- Udateko egutegiari dagokionean ere aldaketa batzuk proposatu dira, honela uztailleko arratsaldeko lehen hamabostaldiko zerbitzua kendu da eta oporrak egiteko aukera zabaldu da:

“2.- UDATEko egutegia eta ordutegia.

- *UDATEko jendurreko ordutegia hau izango da: 07:15etik 14:15era astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, eta ostegunean, berriz, 07:15etik 19:00etara, abuztuan eta uztailen izan ezik non arratsaldeko zerbitzurik ez da emango.*

- *2023 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da Udateko zerbitzuan:*

- *Ostegun gizona: 07:15-11:15.*
- *Ostiral mehea: 08:00-12:00*
- *astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai*

- *Bestalde, 2023 urtean dauden zubietan ere gutxieneko zerbitzua 2 administrarietan finkatzen da.”*

.../...

“- Arautegi honetatik at geldituko dira UDATEko langileak, zeintzuk urtean zehar oporrak egiteko aukera izango duten, zerbitzua beti ere lau langileekin bermatua egon beharko duelarik (uztailerako eta abuztuko hilabetea salbu, non, orokorrean, bi langilek oporrak egin ahal izango dituzten eta abuztuko hirugarren astean hiru langilek hartu ahal izango duten).”

Hirugarrena.- Udaltzaingoaren egutegian, honakoa gaiak sartzea onartzen da:

- Txanden arteko solapeak: agente lehenak 15 minutu lehenago sartzen diren bitartean, txandakako agenteak 10 minutu lehenago sartzea onartzen da, beti ere solape hori eraginkorra bada, udaltzain buruzagitzak emandako jarraibideen arabera. Puntu hau berrikusgarria izango da urtean zehar ikusten den eboluzioaren baitan.



- Oporrei dagokionean, honako testua onartu da:

- “ *Abenduak 18tik, Urtarrilak 7arte (Abenduak 24, 31 eta Urtarrilak 5 kendurik, hauetan ezin izango da oporrak ez lizentziak hartu) gutxieneko zerbitzu bermatuta, oporrak, AP-ak edo orduak soberan hartu daitezke.*
- *Egun hauetarako gutxieneko zerbitzuak, hauek dira:*
 - *-Buruzagitza: 1*
 - *-administrariak: 1*
 - *-Irratia: 1*
 - *-Hiru txandako langileak: 3*
 - *-Bi txandako langileak: 2”*

- Iñauteri, San Juan egunak eta azoka bereziak:

“Data hauek bermatzeko, Udaltzainburuzagitzak ezarriko ditu urte hasieran egongo diren errefortzuak urteko egutegiaren barruan.

3 txandako udaltzainek 12 orduko bi txandetan errefortzuak egingo dituzte (guztira 24 ordu gehienez).

6 taldeko udaltzainek 12 orduko txanda batean errefortzatuko dute gehienez.”

Egun hauetan jai duten udaltzain guztiek udaltzain buruaren esanetara egon beharko dute, zerbitzu beharren arabera lanera etorri beharko dutelarik. Egun hauetan lan egindako orduei, lanpostuen baloraziotik eratorritako konpentsazioak aplikatuko dira.”

- Ordezkapenak: honako testua proposatu da:

“Zirkunstantzia jakin batzuegatik, (bajak, bakanteak,...) bete gabe dauden lehen mailako agenteen lanpostuak beste agente batzuek beteko dituzte, ahalik eta azkarren.

Ofiziala eta ofizial ordeak beraien artean ordezkatzeko dira eta biak batera falta badira, iraupen motzeko epealdiak badira, Alkateak edo Antolakuntzako zinegotzi delegatuak erabakiko du ordezkapena noiztik hasiko den. Dena den, iraupen luzeko baja baten ondorioz edota plaza hutsik geratzen delako, ordezkapena derrigorrez egingo da. Azken kasu honetan, ordezkapen sistema bat adostuko da ordezkari sindikalekin.”

Laugarrena.- Txistularien egutegien inguruan, honako aldaketak onartzen dira:

- Lan egutegia: eguraldi txarra egiten badu, emanaldiak hiru aterpetan jotzea ontzat ematen da baina igandeko lan saioa eta jotzeko denbora bete beharko da.

- Norberaren ikasketarako orduak; 189 ordu presentzial eta 65,6 ordu ez presentzial eta fitxatu gabe etxean egiteko eskaera ez da onartzen. Fitxaketarik gabeko orduak ez dira onartzen, eta ordu ez presentzialak egiteko udalak Gorosabel egoitzan dagokion gela jarriko du bakoitzak bere instrumentuarekin bakarka ensaiatu ahal izateko.



- Entseguak; uztailean eta irailean lehen egunetan entseguak ez egotea onartzen da, orain arte izan duten funtzionamendurekin jarraituaz.

- Protokolo orduak eta uztaile eta iraileko diana motzak (ordubetekoak direnak): hauen balioa gutxienez 1,30 ordu izatea eskatzen da. Protokolo orduak 1,30 orduko balioa izatea onartzen da baina uztaileko eta iraileko orduen balioa mahai gainean geratzen da, aztertu arte udalak udal txistulari andako langileekin hartutako akordioak aurkitu eta aztertu bitartean.

II.- EGUTEGIARI BURUZKO XEDAPENAK

A) Enplegatu Publikoen oinarrizko Estatutua

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, lan egutegiak, lanaldiak, ordutegiak, oporrak eta baimenak, besteen artean, pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira. Zentzu horretan, lan egutegiari buruzko irizpide hauek, ordezkari sindikalekin, 2022ko abenduaren 13an, 2022ko abenduaren 16an, 2023ko urtarrilaren 10ean, 2023ko urtarrilaren 24an eta 2023ko otsailaren 8an negoziatu ziren.

B) Udal hitzarmena

Aurreko puntuan esandakoaren ildotik, udal hitzarmenaren 17 artikulua, lan egutegiaz hitzegiten duenean, lan ordutegiaren banaketa langileen ordezkariekin negoziatu eta lotuko dela adierazten du, beti ere zerbitzuaren beharra bermatuta egon behar duelarik.

Tolosako udal langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak honako hauei buruzko xedapen nagusiak biltzen dituzte: lanaldia, atsedanak eta jaiegunak, oporrak, aparteko zerbitzuak, lizentziak eta baimenak, ordutegiak eta egutegiak. Horien barnean, lan egutegia, benetako lana edota egutegiaren lanaldi banaketari buruzko oinarrizko arauak xedatzen ditu.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako udaleko 2023 urteko barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioa, ebazpen honen eranskin gisa doana. Halaber, langileen presentzia kontrolatzeko irizpideak indarrean jarraituko dute.

BIGARRENA.- Onartzea Udaleko 2023 urterako egutegia, ebazpen honen eranskin gisa doazenak.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau langileen ordezkariari eta udaleko langile guztiei jakinaraztea, zerbitzu instrukzioen eta egutegiaren irizpideen kopia bat langileen eskura jarriaz (udaleko sarean).

4. ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIEN ETA SALBUESPENEZKO PROZESUEN OINARRIETAN AKATS ZUZENKETAK ONARTZEA.

I.- Tolosako Udalak 2022ko abenduaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarrean egindako bilkuran onartu zuen enplegua finkatzeko prozesu berezien eta salbuespenezko prozesuen oinarriak. Halaber, 2022ko abenduaren 2ko Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuran enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoen aldaketak onartu zituen. Akordio hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2022ko abenduaren 28an (245. Zkia).

II.- Behin oinarriak Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, hainbat akats somatu dira, hain zuzen hauexek:

1.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Orokorreko eskalan, kudeaketako azpieskalan, A2 azpitaldea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean tituluan, soilik "etxebizitzako teknikariari" erreferentzia egiten dio baina beste lau lanpostu ere daude oinarri espezifiko hauen barnean, hain zuzen ere kirol instalazioetako kudeatzailea, gazteri teknikaria eta bi berdintasun teknikari. Hortaz, zuzenketa hau egitea onartzen da.

2.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Orokorreko eskalan, azpieskala teknikoan, honelaxe dio:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)
NÚMERO DE PLAZAS	PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS	CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.)
1	Komunitate eta Gobernantzako arduraduna Responsable de Comunidad y Gobernanza	LP M: 24; BO: 20.331,50 euro 4. HE (DD: 2021/06/30) Titulazioa: Doktorea, Lizentziatua, Ingeniaria, Arkitektoa edo baliokidea N. CD: 24; C.ESP: 20.331,50 euros PL 4 (FP: 2021/06/30) Titulación: Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalente.



Kasu honetan, 2022ko maiatzaren 19an argitaratu zen Lan eskaintza Publikoaren onarpenean, lanpostu honi dagokionez plazaren izena argitaratu zen, alegia, Goi mailako teknikaria, Administrazio Orokorreko Eskala, azpieskala tekniko. Orain, 2022ko abenduaren 28an oinarri espezifikoen onarpenarekin argitaratu zen izena plaza honi gaur egun dagokion lanpostua da, alegia “Komunitate eta Gobernantza arduraduna”, horregatik ez dator bat Lan Eskaintza publikoan argitaratutako plazaren izena eta oinarri espezifikoetan onartu den lotutako lanpostuaren izena. Dena den, gaia argitze aldera, lotuak dauden bi lanpostuak jartzea proposatzen da, hau da, “Partaidetza, gardentasuna eta datuen babeserako delegatua AOT” eta “Komunitate eta Gobernantza arduraduna”.

3.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, txistularien lanpostuan bi aldaketa proposatzen dira:

- Batetik, titulazioari dagokion atalean honela jartzen du: “Musikako gradua, Erdi mailako titulua musikan edo parekatua” . Kasu honetan, titulazioa “erdi mailako titulua” izatea proposatzen da, irekiagoa utziaz izangaiantzat.

- Bestetik, hirugarren hizkuntz eskakizunari dagokion betebeharrean, derrigortasun datarik ez da azaltzen. Kasu honetan, derrigortasun data 31.01.1994 da, izan ere data ez argitaratzea akats bat izan da, hortaz hau zuzentzea proposatzen da.

4.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, Udaltzainen lanpostuetan, A2 eta B + E gida baimenen egiaztatze epea behin formazio eta praktika epealdia amaitzen denean jartzea proposatzen da. Hortaz, honako aldaketa proposatzen da:

“3.- Lanpostuak betetzeko berariazko eskakizunak

.../...

3.2.- Era berean, deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuak betekizun espezifiko hauek daukate:

Baldintza gehigarria: gaintitzea Euskal Herriko Polizia Akademian prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia.



Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira, salbu A2 eta B + E gida baimenen egiaztatzeke epea zeina formazio eta praktika epealdia amaitzerakoan egiaztatu beharko da.”

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako akats zuzenketak Tolosako Udaleko 20/2021 legetik eratorritako ez ohiko lan eskaintza publikoan sartutako plazak betetzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri espezifikoetan; zehazki, honakoak:

1.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Orokorreko eskalan, kudeaketako azpieskalan, A2 azpitaldea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean titulua aldatzea eta etxebizitzako teknikaria, kirol instalazioetako kudeatzailea, gazteri teknikaria eta bi berdintasun teknikari ere azaltzea.

2.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Orokorreko eskalan, azpieskala teknikoan: lotuak dauden lanpostuen atalean, lanpostu honi bi izendapen ematea: “Partaidetza, gardentasuna eta datuen babeserako delegatu AOT” eta “Komunitate eta Gobernantza arduraduna”.

3.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, txistularien lanpostuan bi aldaketa egitea:

- Batetik, titulazioari dagokion atalean, titulazioa “erdi mailako titulua” izatea.

- Bestetik, hirugarren hizkuntz eskakizunari dagokion betebeharrean, derrigortasun data 31.01.1994 jartzea.

4.- Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoetan, zehazki Administrazio Bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, Udaltzainen lanpostuetan beltzez dagoen aldaketa gehitzea:



“3.- Lanpostuak betetzeko berariazko eskakizunak

.../...

3.2.- Era berean, deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuak betekizun espezifikoko hauek dauzkate:

Baldintza gehigarria: gainditzea Euskal Herriko Polizia Akademian prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira, salbu A2 eta B + E gida baimenen egiaztatzeke epea zeina formazio eta praktika epealdia amaitzerakoan egiaztatu beharko da.”

BIGARRENA.- Deialdiak martxan jartzea eta argitaratzea oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki-taulan.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea langileen ordezkarietara.

5. ONARTZEA EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEAN TOLOSAKO UDALERRIAN LOKAL JAKIN BATZUK ERABILTZEKO BAIMENAREN BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN HITZARMENAREN LUZAPENA.

Aurrekariak:

Gizarte Zerbitzuko Teknikariak 2023ko urtarrilaren 27an txostena egin du ondorengo azalduz:

“Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak eta Tolosako Udalak 2018ko abenduaren 4an udal herrian lokal jakin bat erabiltzeko baimentzen zuen hitzarmena sinatu zuten, Konkretuki Familia Elkargunea zerbitzua Tolosan eman ahal izateko hitzarmena.

Aipatu behar da, aurrekari moduan, Tolosan Familia Elkargune bat sortzeko ibilbidea hasi ginelako 2016ko maiatzean, indarkeria matxista egoerak artatzeko Udal Protokoloaren jarraipeneko lan taldeak somatutako beharra bideratzeko eta alkateak-zinegotziak ontzat emanda.

Familia elkargunea toki neutral eta seguru bat da, non adingabeek beren gurasoekin eta/edo ahaideekin egoteko eskubidea bermatzen den, eskubide hori zenbait arrazoi direla-eta beren etxeetan erabili ezin dutenean. Ebazpen judizial baten bidez heltzen dira



familiak gizarte zerbitzu hauetara, bertan diziplina anitzeko ekipo tekniko baten segurtasun eta ongizate bermatzen da.

Tolosako epaitegiaren eskumeneko familiek Donostiara joan behar izan zuten 2018ra arte, horrek suposatzen duen eragospenekin, garraibide gastua, denbora, etabar. Hitzarmen horri esker Tolosako Epaitegi Barrutian dauden familiak hobekuntza nabarmena izan dute, herrian bertan zerbitzua dutelako.

Denbora honetan zerbitzua erabili duten familia edota pertsona kopurua: 19 familia, 28 haur, 39 heldu.

Bai Udalak, bai Eusko Jaurlaritzak egokia jotzen dugu hitzarmen hau luzatzea, horregatik Eusko Jaurlaritzako Kontseilu Batzordeak 2022ko azaroaren 29an horrela egitea proposatzen du. (ERANSKINA)

Guzti hori kontua izanda, Proposatzen du: aipatutako hitzarmena luzatzea. Luzapenak indarraldi hau izango du: Abenduaren 5etik 2025eko abenduaren 31ra bitartekoa.

Txosten juridikoa:

2018ko abenduaren 4ean aipatutako hitzarmena sinatu zen lau urteko iraupenarekin.

Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015ko legearen 49.artikuluaren dago arautua:

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.
- b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.
- c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.
- d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.
- e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeak ondorioztadaitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.



f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatzen daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea. Estatuaren Administrazio Orokorra edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenaren kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

Beraz, hitzarmena luzatzeko aukera dago, baldin eta epe barruan hartzen bada erabakia. Kasu honetan, euskal gobernuak luzapen-akordioa kontratuaren indarraldian hatu zuen, naiz eta jakinarazpena beranduago egin. Interpretazio malgua eginez gero, kontratua luzatzea zuzentzat jo daiteke.

Onartu behar duen organua: Tokiko Gobernu Batzarra *Horrela dio 1228 Dekretuak, uztailaren 16koak: "Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:5.-Lankidetzaren Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzaren hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.*

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA. Onartzea 2018ko abenduaren 4an sinatutako hitzarmenaren luzapena, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Tolosako Udalaren



artekoa, zeinaren bidez Tolosako Udalerrian lokal jakin batzuk erabiltzeko baimenaren baldintzak hitzartzen baitira.

BIGARRENA.- Aipatutako luzapenaren indarraldia 2022ko abenduaren 5etik 2025eko abenduaren 31ra bitartekoa ezartzea.

HIRUGARRENA.-2018ko abenduaren 4an sinatuako hitzarmeneko gainerako klausulak bere horretan uztea.

LAUGARRENA- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

BOSGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

6. ONARTZEA TOLOSALDEA GARATZEN SAREKIN TURISMO OROIGARRIAK SALTZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENA.

1. IDENTIFIKAZIO DATUAK

Departamentua:	Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak
Arloa:	Turismoa
Espedientea:	2022IHTP0004
Gaia:	Turismo oroigarriak saltzeko lankidetzaren hitzarmenaren luzapena
Interesatua:	Tolosaldea Garatzen, S.A.

2. AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022/06/28an, besteak beste, honakoa onartu zuen: Tolosaldea Garatzen SArekin Lankidetzaren hitzarmena sinatzea oroigarriak saltzeko.

Tolosako Udaleko erregistroan, 2022ko abenduaren 21ean, 2022-13422 sarrera erregistro zenbakiarekin, Tolosaldea Garatzen entitatearen izenean, Olatz Ilarregi Martiarena andreak, aipatutako hitzarmenari dagokion zuriak aurkeztu zuen.

Aurkeztutako memorian ageri den bezala, hitzarmeneko lehen klausulan adierazten da Tolosako Udalak Turismo bulegoari 106 katilu eta 100 aterki entregatzen dizkiola. Hala



eta guztiz ere, aipatu behar da sailak materiala jaso zuenean ez zuela materiala zenbatu.

Horren haritik, Entitateak sailari jakinarazi zion moduan, eta aurkeztutako zuriketa-memorian adierazten den bezala, 65 katilu eta 93 aterki entregatu zitzaizkion.

Sailak falta ziren horiek aurkitzeko saiakera egin bazuen ere, ez ziren agertu.

Bestalde, memoria adierazten den moduan, 2022ko irailaren 12an, *Grassland* konferentziako kideei, Tolosako udaleko Patxi Amantegi zinegotziak berak turismo bulegotik antolatu zen bisita gidatuan parte-hartu zuten kongresuko kideen artean 30 arteki banatu zituen doan, Tolosako oroigarri gisa.

Errenta azpisailak fiskalizazioa egin du. Honakoak dira egindako salmentak eta oraindik saltzeke daudenak:

Produktua	TGri ustez entregatuak	TGri benetan entregatuak	Salmentak	Oroigarri gisa banatuak	Izakinak
Katiluak	106	65	22		43
Aterkiak	100	93	12	30	51

Aipatutako guztiaren ostean, ondorioztatu daiteke oraindik 43 katilu eta 51 aterki saltzeke geratzen direla.

Bestalde, hitzarmeneko bigarren klausulan honakoa xedatzen da: *turismo bulegoak 2022ko abenduaren 15 arte izango ditu produktu horiek bulegoan salgai. Behin epe hori igarota, bi aldeek adostasunez erabakiko dute produktu horiek saltzen jarraitzea edo ez.*

Tolosaldea Garatzen entitateak otsailaren 15ean dauka aurreikusia diru-sarrera egitea.

3. ARAUBIDE JURIDIKOA

Luzapenari dagokionez:

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49. Artikuluan honakoa xedatzen du:



1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Organo eskudunari dagokionez:

Lankidetzak hitzarmena onartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, 2019ko uztailaren 16ko 1228 zk.ko Alkatetzak dekretuan xedatutakoaren arabera: "Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:-5. Lankidetzak Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea".

4. JUSTIFIKAZIOA

Beraz, kontuan izanda honako arrazoiak:

- Hitzarmena oraindik zuriketa epean dagoela, eta hortaz, indarrean dagoela;
- Hitzarmenak luzapenerako aukera ematen duela;
- Oraindik katiluak eta aterkiak saltzeko daudela;
- Eta bi aldeen artean luzapena gauzatzeko adostasuna dagoela;

Honako ebazpen proposamena aurkezten zaio Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari:

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tokiko Gobernu Batzarrak 2022/06/28an onartutako hitzarmena, Tolosaldea Garatzen SAREkin oroigarriak saltzekoari buruzkoa, izakinak amaitu arte edo gehienez 4 urtez luzatzea.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren klausulak bere horretan mantentzea, honakoak salbu:

LEHENA.- Oroigarriak



Hitzarmen honen sinadurarekin batera, Tolosako Udalak Turismo bulegoari honako produktuak entregatzen dizkio, jarraian zehazten den prezioan saltzeko:

Produktua	Kopurua	Prezioa / unitateko
Katilua	43 unitate	9 €
Aterkia	51 unitate	21 €

BIGARRENA.- Iraupena.

Turismo bulegoak izakinak amaitu arte izango ditu produktu horiek bulegoan salgai eta gehienez ere 4 urtez. Behin epe hori igarota, Turismo bulegoak Tolosako Udalari entregatuko dizkio saldu gabeko izakinak, baldin eta egongo balira.

HIRUGARRENA.- Zuriketa.

Turismo bulegoak urte bakoitzeko abenduaren 22a baino lehen, Tolosako Udalari salmenten zerrenda bat entregatuko dio, honakoak identifikatuta dituela: salmenta data, saldutako unitate kopurua eta prezioa. Zerrenda Udalean entregatu ondoren, Udalak faktura egingo du zerrendaren arabera eta abenduaren 31 baino lehen, Turismo bulegoak dirua honako kontu korrontera transferituko da honako kontzeptu pean: ES45 2095 5067 10 1060024816, Turismo bulegoa – oroigarriak.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian.

HIRUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Idazkaritza eta Kontuhartzailatza departamentuei eta Tolosaldea Garatzen SA erakundeari.

7. ONARTZEA “12.4 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 32, 34, 36” AZPIESPARRUKO GAUZATZE-UNITATEAN JARRITAKO BERMEAK BUELTATZEA.

AURREKARIAK

«12.4 San Frantzisko pasealekua 32, 34 eta 36» azpiesparruko gauzatze-unitatearen baitan, Promotora Iristizabal SL enpresak Tolosako Udalean honako berme hauek aurkeztu zituen:

- 2017ko otsailaren 21ean, kontzertazio hitzarmenean jasotako konpromisoak betetze aldera, urbanizatze-kargen zenbatekoaren % 7ri dagokion bermea: 75.279,35 € (4-2017 dok.).



- 2017ko martxoaren 17an, kontzertazio hitzarmenean jasotako konpromisoak betetze aldera, urbanizatzeko-kargen zenbatekoaren % 7ren aldea jasotzen zuen bermea: 944,76 € (11-2017 dok.).
- 2021eko uztailaren 2an, bigarren faseko urbanizazio lanak bermatzeko diru depositua: 128.243,96 € (56-2021 dok.).

2022ko abenduaren 21ean, Tolosako Udalak «12.4. San Frantzisko pasealekua 32, 34 eta 36» azpiesparruko urbanizazio obrak jaso zituen.

2022ko abenduaren 27an, Josu Ferro Urigüen eskatzaileak, Promotora Iristizabal SL enpresa ordezkatzuz, jarritako bermeak itzultzeko eskatu zuen.

AZTERKETA TEKNIKOA

2023ko otsailaren 7an, udal ingeniariak honako hau jaso zuen txostenean:

«Ikusita urbanizazio obrak inongo defizientzirik gabe jaso direla, ez dago eragozpenik aipatutako bermeak itzultzeko.

PROPOSAMENA

*Aurrekoa kontuan hartuta, dokumentu honetan azaltzen diren **bermeak itzultzea** proposatzen dut:*

Lehena: 75.279,35 eurokoa, 4-2017 dokumentuaren arabera.

Bigarrena: 944,76 €-koa, 11/2017 dokumentuaren arabera.

Hirugarrena: 128.243,96 €-koa, 56-2021 dokumentuaren arabera».

Adierazitako aurrekariak zein egindako azterketa teknikoa ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Promotora Iristizabal SL enpresari (ordezkaria: Josu Ferro Urigüen), «12.4 San Frantzisko pasealekua 32, 34 eta 36» azpiesparruko gauzatzeko-unitatearen baitan jarritako berme hauek bueltatzea:

- 2017ko otsailaren 21ean, kontzertazio hitzarmenean jasotako konpromisoak betetze aldera, urbanizatzeko-kargen zenbatekoaren % 7ri dagokion bermea, kopurua **HIRUROGEITA HAMABOST MILA, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (75.279,35 €)** izanik.



- 2017ko martxoaren 17an, kontzertazio hitzarmenean jasotako konpromisoak betetze aldera, urbanizatzeko-kargen zenbatekoaren % 7ren aldea jasotzen zuen bermea kopurua **BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (944,76 €)** izanik.
- 2021eko uztailaren 2an, bigarren faseko urbanizazio lanak bermatzeko diru depositua: **EHUN ETA HOGEITA ZORTZI MILA, BERREHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (128.243,96€)** izanik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunari eta Kontu-hartzaitza zein Diruzaintzari.

8. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/270 DEKRETUA: 2022/62 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/270 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

62. zenbaki duena, 10.518,75 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0004

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

62. zenbaki duena, 10.518,75 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/275 DEKRETUA: 2022/63 FAKTURA ZERRENDA

Idazkariak 2023/275 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu lege eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

63. zenbaki duena, 176.891,20 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0004

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

63. zenbaki duena, 176.891,20 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALEKO EGUTEGIAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU INSTRUKZIOA

Azken urte hauetan, Giza Baliabide sailak lan egutegiari buruzko irizpide orokorrak onartzea proposatu zuen, testu bateratu eta homogeen bat edukitzeko helburuarekin. Dokumentu hau, urteroko egutegiaren onarpenarekin batera eguneratu eta egokitu egiten da, une bakoitzean dauden beharrak eta eman nahi diren zerbitzuak kontuan hartuz.

Honela, 2023 urterako egutegiaren zerbitzu instrukzioan aldaketa batzuk proposatzen dira. Aldaketa horiek Udate zerbitzuko lanpostuen, lan saio malgua duten lanpostuen eta udaltzaingoaren egutegiei eragiten die batez ere.

Egutegi proposamenak hiru eranskin ditu, hau da:

- Batetik, egutegiei dagozkien instrukzioak eta horien aplikazioa (I. eta II. eranskinak).
- Bestetik, egutegi horietatik eratortzen diren lan orduetako dagozkien aplikazioa, interpretazioa eta zenbaketa (III. eranskina).

AURREKARIAK

Administrazio publikoek, ordenamendu juridikoak markatzen dituen printzipio eta ahalmenen barnean, dagozkien neurriak hartu ahal izango dituzte interes orokorra eta kalitatezko zerbitzu publiko bat emateko helburuarekin.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 4. artikuluan, Administrazio Publikoari (eta gure kasuan udalari) bere burua antolatzeko ahalmena ematen dio, udalak duen autonomiaren barruan.

Enplegatu publikoen betebeharren artean, udal herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eskaintzea da, beti ere udal eskuduntzen barruan eta udal gobernuak ezarritako udal politiken markoan oinarrituta. Horrela, enplegatu publikoen lan egutegiak eta ordutegiak momentu bakoitzean eman nahi den zerbitzura egokitu beharko dira, eta horiek aldatu ahal izango dira zerbitzu edo behar berriak sortzen direnean, beti ere langileen ordezkariekin negoziatu ostean.



TOLOSAKO
UDALA

Kontuan hartuta egutegia legeak ezartzen duen instrumentu bat dela lanaldiaren banaketa urtean edo astean zehar egiteko eta, bide batez, enplegatu publikoen lanaldia finkatzeko, hauxe da **PROPOSAMENA**:

EGUTEGIA ONARTZEKO INSTRUKZIOAK ETA APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Egutegiak onartzeko garaian, honako arau orokor hauek aplikatuko dira:

1.- Aplikazioa eremua.

Egutegiaren arau orokorrak aplikagarri izango zaizkie Tolosako Udaleko langile guztiei

2.- Lan egutegiari buruzko arau orokorrak.

Udalaren lan egutegia egingo da udal hitzarmenak xedatzen dituen urteko 1.592 orduak kontuan hartuta, eta lanaldiaren banaketa egunean, astean edo hilabetean desberdina izango da zerbitzu bakoitzaren beharren arabera, jarraibide honetan azaltzen diren lan saio luzatutako lanpostuen kasuan ezik .

3.- Lanaldi orokorra: iraupena eta lan banaketa.

Zerbitzu bakoitzari aplikagarri zaion egutegiaren arabera, eguneko gutxieneko lanaldia 7,00 ordutan finkatzen da, 5. artikuluan xedaturikoari kalterik egin gabe.

Udal bulegoetan, udal langileen gutxieneko lanaldiaren ordutegia 08:30etatik 14:00etara izango da. Arau honetan salbuespen dira honako hauek: txandaka lan egiten duten langileak; beranduago sartzeko edo lehenago ateratzeko aurrez eskatutako eta onartutako baimena eta lizentzia dutenak; edota ordutegi berezi bat duten zerbitzuak.

4.- Lan saio motak: lanaldi luzatua eta ordutegi bereziak.

Udalak, bere eskuduntzen barruan, eta onartu berri den lanpostuen balorazioaren ondorioz, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira. Honela, bost lan saio mota finkatzen dira:

- Ohiko lan saioa: goizez egiten dena.
- Lan saio malgua: lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu.
- Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu.
- Lan saio zatikatua: goizez eta arratsaldez
- Txandakako lanaldia: goizez, arratsaldez eta gauez, edota goizez eta arratsaldeko txandatan banatzen dena.



TOLOSAKO
UDALA

5.- Udarako lanaldi jarraitua.

Uztaileko hilabetean, Udalak lanaldi murriztua aplikatuko du bulegoetako egutegietan, beti ere, zerbitzua ez badago taldetan edo txandaka antolatuta eta zerbitzuaren beharrak ahalbidetzen duen heinean.

6.- Oporrak, norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak.

6.1.- Oporrak: 24 lanegun izango dira eta urte guztian zehar egiteko aukera izango da abenduaren 10eko data mugarekin, beti ere zerbitzu beharren baitan eta honako irizpideak kontuan hartuaz:

- Urte guztian zehar sail bakoitzean % 50eko presentzia bermatu beharko da, uztaileko eta abuztuko hilabeteetan ezik. Halaber, uztailean eta abuztuan dokumentu honetako jasotako gutxieneko zerbitzuak bete beharko dira.

- Oporrengatiko 24 lanegun hauek, langile bakoitzak uztaileko edo abuztuko hilabetean gutxienez 10 lanegun hartu beharko ditu, justifikaturiko salbuespenak izan ezik. Salbuespen hauek arrazoitu beharko dira eta Zerbitzuburu zein Zinegotzi Delegatuak onartuak izan beharko dute. Azkenik, GGBBetako arduradunek bermatuko dute Instrukzio honetan onartutako irizpideak betetzen direla, eta hala ezean, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz.

- Abenduan zehar, % 50eko plantilla mantendu beharko da departamentu guztietan, hortaz oporrak eta norbere gaietarako lizentzia egunak zein hirurtekoak hartzerako garaian, zerbitzuaren behar hau kontuan hartuko da.

- Arautegi honetatik at geldituko dira UDATEko langileak, zeintzuk urtean zehar oporrak egiteko aukera izango duten, zerbitzua beti ere lau langileekin bermatua egon beharko duelarik (uztaileko eta abuztuko hilabetea salbu, non, orokorrean, bi langilek oporrak egin ahal izango dituzten eta abuztuko hirugarren astean hiru langilek hartu ahal izango duten).

- Hauetaz gain, aldi berean, ezingo dituzte oporrak batera hartu honako lanpostuetako langileek:

1.- Idazkariak eta idazkaritzako teknikari juridikoak

2.- Kontuhartzaileak eta kontuhartzaitzako teknikariak.

3.- Udaltzaingoaren Ofizialak eta ofizial ordeak

4.- Udaleko web orriaren kudeatzaileek. Zentzu honetan, web orriaren kudeatzaileek koordinatu beharko dira hutsunerik ez sortzeko.

5.- Orokorrean, Departamentuetako arduradunek eta haien ordezkoeak.

6.- Orokorrean, antzeko zereginak dituzten lanpostuetako langile guztiek (arkitektoek, informatikoeak, gizarte langileek, departamentuko administrariak....)



- Abenduaren 10erako ez badira oporrak egin, galdutzat emango dira. Soilik salbuespenezko kasuetan, langileak azaroaren 15a baino lehen idatzi bat aurkezteko aukera izango du zerbitzuburuaren eta zinegotzi delegatuaren oniritziarekin. Kasu horretan, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko da eta Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz. Beti ere, oso salbuespenezko kasuetan onartuko dira oporren atzerapenak (udaleko hautaketa prozesuetako ikasketak burutzeko, postgraduako azterketak egiteko kasuetan edo zerbitzuaren beharrak eskatzen duenean). Opor egun horiek egin ahal izateko atzeraturiko epea, hurrengo martxoaren 31an amaituko da. Ezgaitasun iragankorreko kasuetan oporrak egiteko eskubidea mantenduko da, legeak xedaturiko eran.

Bestalde, urteko oporrei dagokienez, sail bakoitzak, bere zerbitzuburuaren bitartez, martxoaren 31a baino lehen aurkeztu beharko du oporren plangintza Giza Baliabideetako Sailean, eta zerbitzuaren beharren arabera antolatuko dira zerbitzuak, bermatuz beti, udal langileen presentzia lantokian edo sailean dokumentu honetan jasotako irizpideen arabera.

Zerbitzuburu bakoitzak langile bakoitzaren oporren plangintza onartu beharko du, ziurtatuz goian zehaztutako irizpideak bermatzen direla, eta betetzen ez direnean, horren arrazoia azalduz. Plangintza hau (edo bere egokitzapen arrazoitua), modu berean, sail bakoitzeko zinegotzi delegatuak onartu beharko du baita ere. Plangintza GGBBetara bidaliko da sinatuta bai Zerbitzuburu zein Zinegotzi Delegatuaren oneritziarekin. Azkenik, GGBBetako arduradunek bermatuko dute Instrukzio honetan onartutako irizpideak betetzen direla, eta hala ezean, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, eskaera baimenduaz edo ukatuaz.

Udal eraikinak urte guztian zehar irekita egon behar dira, kasu hauetan salbu:

- Eraikin guztietan, egutegiko jai egunetan
- Kultur Etxea: abuztuaren 7tik 20ra itxita egongo da.

6.2.- Udal langileek dagokion urteko egutegia ixten den egunera arte izango dute aukera norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak hartzeko, udal hitzarmenak markatzen dituen baldintzen arabera, eta ezingo dira inolaz ere hurrengo urtean hartu.

6.3.- Aste Santua eta Eguberrietako asteak: Aste Santuko eta Eguberrietako aste errekupegarriei dagokienez, sail bakoitzak, bere barne antolakuntzaren barruan, Giza Baliabideetako sailean aurkeztu beharko du proposamena, data horiek iritsi baino 15 egun lehenago. Zerbitzuak une oro bermatua egon beharko du aste horietan.

Ezingo dira bi aste desberdinetako egun errekupegarriak jarraian disfrutatu, hau da, ezingo dira bi aste jarraian hartu. Halaber, ezingo dira Eguberrietako zein Aste Santuko egun horiek hirurteko edo lizentzia egunekin zein oporrekin elkartu, ez aurretik ezta ondoren ere. Bi kasu horietan, dagokion organo eskudunak aldaketak baimendu ahal izango ditu, salbuespenezko izaeraz eta zerbitzuaren beharren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

6.4.- Lansaio malgua izateagatik osagarri berezirik ez duten lanpostuen kasuan, ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko orduak izan ala ez — ordu bakoitzeko bi ordutako konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredia); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei:-

Atal hau ez da aplikagarria izango lan saiogatik berariazko osagarrian lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuetan; azken kasu hauetan konpentsazioa ordu bakoitzeko ordu batekoa izango da.

6.5.-Urteko orduen zenbaketa eta saldoa: urte amaieran langileek sobera dituzten orduak iraungi egingo dira eta egutegi berria martxan jarriko da. Ildo horretan, langileak soberan dituen orduak murrizten joango da, bestela, urte bukaeran, iraungitzat deklaratu dira eta urteko egutegi berriarekin batera, urteko saldoa hutsean hasiko da. Arau hau lan presentzia kontrolatzen duen eranskinean jasoko da.

7.- Prestakuntza eta orduen zenbaketa.

Tolosako Udaleko langileek formazio edo prestakuntza-saioetan parte hartzeko araudia ondoren adierazten den moduan aplikatuko da. Araudi honen helburua honako hau izango da: alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzen diren alderdi guztiak arautzea, eta, bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanpostuetarako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Horrela, udal langileei aplikagarri izango zaie 2019ko maiatzaren 9an onartutako araudia (2019/759 Alkatetza Ebazpena), prestakuntza-saioetara joateko eta horren kudeaketa eta orduen zenbaketa egiteko. Hona hemen araudi honen xehetasunak:

7.1. - Ikastaroak onartzeko prozedura.

a) Urtea amaitu aurretik (abenduan), udal langileek, saileko arduradun eta zerbitzuburuak Giza Baliabideetako Sailari jakinaraziko dizkiote sailek prestakuntza edo formazio aldetik dituzten beharrak. Behar horiek justifikatuko egin beharko dira lanpostu bakoitzaren arabera.

b) Urtarrilaren hasieran, Giza Baliabideetako Sailak prestakuntza eskaintza posta elektronikoz jakinaraziko die zerbitzuburuak eta udal langileei, sail bakoitzaren intereseko prestakuntza saioen arabera, proposamenak egin ditzaten.

c) Otsailean, aurkezturiko eskaerak aztertu ondoren, sail bakoitzeko arduradunaren oniritziarekin, Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak urteko prestakuntza plana onartuko du, ikastaro bakoitzaren egokitasunaren arabera eta zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.



TOLOSAKO
UDALA

Giza Baliabideetako Sailak onarpena eman ondoren, formazioa egiteko eskaera-eredua bete beharko da, eta, ondoren, Sail horrek eskaera izapidetuko du dagokion erakundearekin (IVAP, EVETU, HABE...) eta zinegotzi delegatuak ebazpen bidez onartuko du.

Orokorrean, udal langile bakoitzak gehienez ere bi ikastaro (edozein modalitatetan, presentziala edo on-line bidezkoa) egin ahal izango ditu urtean. Hemendik kanpo geratuko dira jardunaldiak edo arau berrien ondorioz sortzen diren jardunaldiak, esate baterako. Dena den, salbuespenez, zinegotzi delegatuak ikastaro gehiago baimendu ahal izango ditu zerbitzuaren beharrak hala eskatzen duenean.

Udalak ordainduko ditu atal honetan xedaturiko eran onarturiko ikastaroen matrikulazio gastuak.

7. 2.- Ikastaroak sorturiko indemnitazioen ordainketa.

Ikastarora joateagatiko gastuak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedaturikoak izango dira eta bidaia gastuen orri eredia betez justifikatu beharko dira.

7.3.- Prestakuntzako orduen zenbaketa.

Prestakuntza ikastaroetako orduak lanordutzat hartuko ditu Udalak; horretarako, eskaerekin batera, formazioko programa, ordutegia eta, ahal den neurrian, edukia erantsi beharko da. *Informazio hori, kasu gehienetan, Giza Baliabideetako Sailak edukiko du, 7.1 atalean araututakoaren arabera. Honek salbuespenezkoa izan beharko luke. 8. ataleko araudia aplikatu nahi bada, hemen xedatu behar da.*

Prestakuntzarako egiten diren joan-etorriak ere lan ordutzat hartuko dira, behar den denbora zenbatuko delarik, eta gehienez ere 3 orduko muga izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan badira.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren prestakuntza saio, jardunaldi eta antzekoen inguruan, interesatuak 15 egun aurretik jakinaraziko dizkio Giza Baliabideetako Sailari saio horien xehetasunak, eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez jakinaraziko da formazio horien orduen zenbatekoa, beti ere prestakuntza izan aurretik.

EAEtik kanpo egiten den formazio saioen kasuetan ere bidaiaren joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 10 orduko muga izango du guztira. Kasu horretan ere, zerbitziburuaren edo/eta zinegotzi delegatuaren baimena beharko du.

Salbuespen kasuetan, udal langileak proposatzen duen formazioa bere lanpostuarekin zuzenean loturik ez badago, hura egiteko aukera izango du honako baldintza honekin: matrikularen kostua ordaindu egingo zaio eta lan orduak errekuperatu egin beharko ditu.



TOLOSAKO
UDALA

8.- Kongresu, ekitaldi, jardunaldi, elkarretaratze, senidetze eta antzeko ekitaldien ordu zenbaketa.

Arestian aipatu bezala, araudi honen helburua da, alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzen diren alderdi guztiak arautzea, eta bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanposturako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Edozein kongresu, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze edo antzeko ekitaldietara joateko baimena ematen denean, bidaiaren denbora (joan-etorriak) lan ordutzat hartuko da eta beti ere 3 orduko muga izango du guztira EAEn bada (2019/759 Alkatetza-Ebazpena).

Arau berbera aplikatuko da EAetik kanpo egiten den edozein kongresu, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze edo antzeko ekitaldietan ere: joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 10 orduko muga izango du guztira. Era berean, puntu honetan emandako lan denbora, honela zenbatuko da:

- Astelehenetik ostiralera, eguneko ohiko lanaldi baten moduan konputatuko da gehienez ere, inolako konpentsazio berezirik gabe.
- Igande edo jaiegunetan, ondoko konpentsazio hau aplikatuko da, eta eguneko ohiko lanaldi baten moduan konputatuko da gehienez ere, eta ordubete bakoitzagatik, ordu eta erdiko konpentsazioa izango dute.

Dena den, goiko puntuan adierazitako kasuan, 15 egun lehenago aurkeztu beharko da eskaera, idatziz, Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin.

9.- Lan saio bereziak.

Lanpostuen balorazioaren ondorioz, bi lanaldi mota aldatu eta eguneratu egin dira eta modu honetan geratu dira:

- a) Lan saio malgua eta lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu. Kasu honetan, lanaldi faktorea eta dedikazio faktoreak kontuan hartu dira. Kasu hauetan, udal hitzarmenaren prestutasuna aplikagarri izango da eta osagarria, balorazioaren baitan, % 5.8an finkatu da.
- b) Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu. Kasu honetan, eguneko ohiko lanaldia izango badu ere, zerbitzuaren beharrak ezarritako jardueretara baldintzatua egongo da beren ordutegia, beti ere lanpostuen ohiko zereginetan goizeko orduetatik kanpoko jarduerak burutzen direla kontuan hartuta. Honela, egutegi mota hau duten lanpostuak honako irizpideak jarraitu beharko dituzte:
 - Egutegiarekin batera urteroko planifikazio bat aurkeztu beharko dute, aurreikusiaz ze ordu kopuru sartuko lituzketen goizeko ordutegitik kanpo.



TOLOSAKO
UDALA

Proposamen horren arabera, Giza Baliabide sailak egutegia aztertu eta oniritzia eman edo aldaketak proposatuko ditu.

- Giza Baliabideetako sailean dagoen informazioa kontuan hartuta, planifikazioarekin lotutako malgutasunezko ordu-kopurua gehienez honakoa izango da:

- 1.- Bulegoetako langileak: 40 ordu.
- 2.- Kultur teknikaria: 80 ordu.
- 3.- Brigadako lantaldea: 80 ordu.
- 4.- Udaltzainak: berezko egutegian adierazten dena.

Dena den, programatu edo planifikatu gabeko lan saioetara deitu ahal izango da, beti ere salbuespenezko izaeraz eta hiru eguneko epeaz abisatuz gero, beti ere programatutako gehienezko ordu kopurua agortu ez bada. Bestelako kasuan, ez ohiko orduen izaera emango zaie ordu hauei.

Kasu guztietan irizpide hauek berraztertu eta eguneratuko dira, Giza Baliabideetako sailean jasotako datuen arabera.

- Guzti honen ondorioz, goizeko ohiko ordutegia ez da bulegoetako ohiko ordutegi berbera izango, hau da, lan saio malguaren ondorioz sartutako orduak, goizeko ordutegia murriztuko dute, guztira 1.592 ordu osatu arte. Halaber, malgutasunezko lan saioa duten lanpostuen kasuan, aukera egongo da arratsaldetan edo asteburuetan egindako orduak metatzeko eta errekuaratzeko, orduz-ordu. Kasu honetan, orduen kitapena hiru hilabetetik behin egingo da.

Lehen azken xedapena.- Arautegi honetan ezartzen diren irizpideak ezin badira aplikatu zerbitzu beharrak direla medio edo langileen eskaera/egoera berezi bat dela medio, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko da eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez erabakiko da.

Bigarren azken xedapena.- Musika Eskolak, Euskaltegiak, Brigadak, Udaltzaingoak, atezainek eta txandakako zein taldekako lana egiten duten kolektiboek bere arautegi eta egutegi propioa izango dituzte eta orain arte aipaturiko araudia aplikatuko zaie, beti ere zerbitzuaren beharrak posible egiten duten heinean.



TOLOSAKO
UDALA

I. ERANSKINA

EGUTEGI ESPEZIFIKOARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

Barne araudiaren 4. puntuak dioen moduan, "Udalak, bere eskuduntzen barruan, eta onartu berri den lanpostuen balorazioaren ondorioz, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira". Horrela, dagokion sailaren urteko lanaldiaren egutegia egokituko da eman behar dituen zerbitzuen arabera eta ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren.

1.- Bulegoetako egutegi eta ordutegi orokorrak.

Irizpide nagusiak:

- Asteko lanaldia asteleheneretik ostiralera finkatuko da.
- Lanera sartzeko malgutasuna egongo da, 07:00etatik 08:30era bitartean. Ordu horretatik aurrera lanera sartzeko, baimena izan beharko du langileak. Horretarako, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko du Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin, eta Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak erabakiko du.
- 2023 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da bulegoetan:
 - o Ostegun gizona: lau ordu.
 - o Ostiral mehea: lau ordu.
 - o Astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai

2.- UDATEko egutegia eta ordutegia.

- UDATEko jendaurreko ordutegia hau izango da: 07:15etik 14:15era astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, eta ostegunean, berriz, 07:15etik 19:00etara, abuztuan eta uztailean izan ezik non arratsaldeko zerbitzurik ez da emango.

- 2023 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da Udateko zerbitzuan:

- Ostegun gizona: 07:15-11:15.
- Ostiral mehea: 08:00-12:00
- astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai

- Bestalde, 2023 urtean dauden zubietan ere gutxieneko zerbitzua 2 administrarrietan finkatzen da.



3.- Merkataritza, Azoka eta Turismoko Azpisailaren egutegia eta ordutegia.

- Bulegoetako ordutegia goizez izango da, urteko azoka berezi eta gainontzeko bilera zein ekitaldiak kontuan hartuta, zerbitzua arratsaldez ere eman ahal izango da. Hala ere, bulegoetako eguneko ohiko lan jarduna bete beharko dute.

4.- Kultura, Gaztedi eta Festetako Sailaren egutegia eta ordutegia.

- Bulegoko ohiko ordutegia 16:30 arte izango da, eta arautegi orokorra aplikatuko zaio.

- Ordutegi malgua duten langileen kasuan: 5 orduko derrigorrezko presentzia izango dute, zerbitzuburuarekin eta zerbitzu beharren arabera adostua izango dena.

5.- Liburutegiko egutegia eta ordutegia.

- Lanaldi jarraitua edo zatikatua izango dute, liburutegiko arduradunak ezarritako ordutegiaren arabera. Liburutegiaren jendaurreko ordutegia hauxe izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Langileen egutegiak aldiz, hiru txandatan banatuko dira (goizez, arratsaldez edota lanaldi zatikatuan).

6.- Brigadaren egutegia eta ordutegia.

- Egutegia astelehenetik ostiralera izango da, 07:00etatik 14:00etara edo 07:30etatik 14:30etara, eta Udalak dituen ekintzen egutegiaren arabera. Jarduerak dauden asteburuetan ere lan egingo dute, urtero zehaztutako egutegiaren arabera, sail guztien ekintzak koordinatu ondoren.

7.- Kiroletako egutegia.

- Usabalgo kirol instalazioan dagoen ordutegiaren eta ekintzen arabera antolatuko da egutegia.

8.- Samaniegoko eta Gorosabelgo atezainen egutegia.

- Samaniego ikastetxeak emandako ikasturteko egutegi lektiboaren arabera egokituko da atezainen egutegia. Ordutegia 07:30etatik 15:15etara izango da bata, eta, bestea, 08:00etatik 12:30etara eta 15:15etatik 18:30etara.

- Musika Eskola edo Euskaltegiak ikasturteko egutegi lektiboa kontuan hartuta, Gorosabelgo atezainaren ordutegia 14:30etatik 22:00etara izango da.

9.- Udaltzaingoaren egutegia.

Zerbitzu hau hiru txandatan eta 24 orduko zerbitzua izanik, bere araudi espezifiko propioa izango du eta urtebeterako egutegi bat onartuko da.

10.- Euskaltegiko egutegia.



TOLOSAKO
UDALA

Aitzol Udal Euskaltegiak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.

11.- Musika Eskolako egutegia.

Musika Eskolak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.



SAIL ETA AZPISAIEN GUTXIENENKO ZERBITZUEN PROPOSAMENA

Ondoren, sail eta azpisail bakoitzean gutxienerako zerbitzu hauek egotea gomendatzen da, hain zuzen ere:

SAILA/AZPISAILA	GUTXIENENKO ZERBITZUA
Udate	Lau administrari, abuztuan (eta zubietan) ezik
Idazkaritza	Goi mailako teknikari bat, kontratazioko teknikari bat, eta administrari bat
Kontuhartzailletza	Kontuhartzailletza arloko teknikari bat eta administrari bat
Informatika	Bi langile
Giza Baliabideak	Administrari bat eta teknikari bat
Kirolak	Langile bat
Euskara	Langile bat
Turismo, Enplegu, feriak..	Teknikari bat eta administrari bat
Hirigintza	Ingenieri/ingenieri teknikoa, arkitekto-teknikoa, arkitektoa eta administraria (bana)
Gizarte zerbitzuak	Bi gizarte langile eta administrari bat
Kultura	Langile bat
Liburutegia	Langile bat propioa (beharren arabera beste bat)
Berdintasuna	Teknikari bat
Gobernantza	Langile bat
Udaleko Lan taldea	Ofizial bat eta lau peoi
Udaltzaingoa	Berezko araudia, buruzagitzako langile bat

Bestelako kasuetan, zerbitzuburuak justifikatu beharko du proposatzen diren aukerak, beti ere egutegiaren printzipio orokorrak mantenduaz.



TOLOSAKO
UDALA

2. ERANSKINA

UDAL HITZARMENAREN EZ-OHIKO ORDUEN 39. ARTIKULUARI BURUZKO INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA

Udal hitzarmenak 39. artikuluan aurreikusitako ohiko lanalditik kanpoko gehiegizko orduen erregulazioa oinarritzat hartuta, honako hau xedatzen da:

1) Aparteko ordutzat hartzen da ezinbestean lan egiten den denbora guztia (ordua eta ordu-zatia), alegia, zerbitzuan ezustekoak edo etenak gertatu direlako (langileren bat bertaratu ez delako, esaterako...) edo bestelako ezinbesteko eta azken orduko ezusteko gorabehera batzuk tarteko egindako lana, aurretik nahiko denboraz antolatu ezin izan denean edo zeregin bat premiaz bete behar denean, beti ere araudi honetan xedaturikoa kontuan hartuz, eta, betiere, ohiko lanaldia gainditzen bada. Beraz, lanalditik kanpo egin beharreko orduak ahalik eta gehien murrizten dira, ez badira komunitateari kalte larriak eragiten dizkioten ezbeharrak saihesteko eta konpontzeko egin beharreko orduak.

2) Ohiko lanalditik kanpo egindako orduak ez dira ordainduko, baizik eta denboran konpentsatuko dira, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 39.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3) Soberako orduak honela zenbatuko dira:

SOBERAKO ORDUAK = (BENETAN LAN EGINDAKO DENBORA -
LANALDI TEORIKOA

4) Behar bezala justifikatzen ez direnean edo aurrez adierazitakoari ongi egokitzen ez zaizkionean, ordu horiei araudi honen 6.4. puntuan xedatutakoa aplikatuko zaio, edo lanaldiaren luzapentzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira ordutegiaren saldoa konpentsatzeko.

5) Aipaturiko ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa erredua); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei.

6) Ohiko lanalditik kanpo egiten diren ordu horiek konpentsatu baino lehen, arestian adierazitako txostenaren bidez zuritu beharko dira, benetan lan egindako denbora islatuz,



TOLOSAKO
UDALA

lanaldia zertan izan den eta horren zergatia zehaztuaz, eta lantokitik edo etxetik behar izan duen desplazamendu denbora adieraziz, beti ere denbora hori egunerokoan bere lantokira joateko behar duena baino luzeagoa bada.

7) Aparteko orduen konpentsazioa honela aplikatuko da:

- Laneguneko aparteko ordu normal bakoitzagatik: 2 ordu.
- Jaiegun edo gaueko (22:00etatik aurrera) aparteko ordu bakoitzagatik, 2 ordu eta erdi.
- Jaiegun eta gaueko aparteko ordu bakoitzagatik: 3 ordu.

